

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO UDALAREN ETA HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN ARTEKO ELKARLANERAKO PROTOKOLOA DELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko martxoan Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2010eko abuztuan, Donostiako Udalak eta Haurreskolak Partzuergoak Donostian Haur Hezkuntzako Lehenengo Zikloan, 0 eta 2 urte artean, plaza berriak sortzeko Lehen Protokoloa sinatu zuten eta 2013. urtean, II. Protokoloa.

2015ean udal gobernu aldaketa eman zen eta orduz geroztik, ez dugu hiriko haurreskolen egoeraren eta beharren berri.

2018. urtean gaude eta Udal Gobernuaren eta Haurreskolak Partzuergoaren artean, protokolo berri bat sinatzeko akordioa dagoela dirudi.

Behin baino gehiagotan adostu dugu hezkuntza guztion intereseko gaia dela eta elkarrekin aurrera egin behar dugula, baina auzoetako haurreskolen egoera eta beharrak ez ditugu ezagutzen. Ezinbestekoa jotzen dugu, lehenik eta behin, hiriko diagnostikoa egitea eta Haurreskolak Partzuergoarekin eta haurreskoletako ordezkariekin ez ezik, udal taldeekin ere hura partekatzea.

Horiek horrela hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari parteka dezala, bi hilabeteko epean, Donostiako auzoetako haurreskolen egoeraren eta auzoen beharren inguruko txostena, baita Haurreskolen Partzuergoari proposatutako Donostiako Udalaren eta Haurreskolak Partzuergoaren arteko Elkarlanerako III. Protokoloaren zirriborroa ere, Udalbatza osatzen dugun taldeekin, elkarlanean adostasuna bilatzeko.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia eh_bildu@donostia.eus

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Udalaren eta Haurreskolak Partzuergoaren arteko Elkarlanerako II. Protokoloan espreski jasota dagoen Donostiako haurreskoletako koordinatzaileekiko elkarlana bermatzeko eta, hilabeteko epean, parteka dezala haiekin auzoetako haurreskolen egoeraren eta auzoen beharren inguruko txostena, baita Haurreskolen Partzuergoari proposatutako III. Protokoloaren zirriborroa ere, elkarlanean adostasuna bilatzeko.

Donostian, 2018ko martxoaren 16an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia